

KUSTOMIZATU ZURE ARROPA

Gonak, prakak, jakak... jantzeko edozer gauza eraldatzea eta norbere behar eta gustura egokitzeari esaten zaio kustomizatzea. Moda barneko korrante berri hau, poliki-poliki, filosofia bihurtzen ari da. Sailean ekoizten diren jantzi berdin-berdinei uko egiten die eta, lotsarik gabe, norbere estiloa azaltzeko deia zabaltzen du. Kustomizatzekeo garaia iritsi zaigu!

Lur Mallea



Prenda original



Prenda costumizada

Armairuan jantzen ez dugun arropa asko dugu gordeta. Modaz pasatakoa edo txiki geratutakoa, besteak beste. Zaramara bota edo beste norbaiti eman ordez, birdiseinatu eta pertsona bakoitzaren estilora egokituz, jantziak eguneratzeko auke-

ra dago. Azken finean, horixe da kustomizazioa: arropa birziklatu eta pertsonalizatzea.

Diseinatzailearen ukitua

Josten jakinez gero, gu geu arduratu gaitezke gure arroparen itxuraldaketaz. Bestela,

diseinatzailearen baten jakintza eta irudimenaren esku utzi dezakegu zeregin hori.

Orratz eta haria maisuki dabiltenak gai dira jaka zaharkitu bati mahuka edo lepoa aldatuz eta apaingarriak erantsiz, bestelako itxura berritua

emateko. Konponketa baino, sormen lana da gehiago.

Aitzindariak

Miguel Adrover jotzen da custom fenomenoaren aitzindari. Bere lehen desfilean ezohikoa den zerbaite egin zuen: bigarren eskuko jantziak erakutsi. Burberrys firmako zapiekkin eginiko txaketa eta Luis Vuitton etxe-



El proceso

ko oihaldun prakak, polemiko eta ezagun egin ziren berehala. Kontsumismoari eta marka handiei barre egiteko modua zen. Gaur egun, aldiz, David Delfin diseinatzailea da kustomizazioaren errege. Moda eta bestelako arte adierazpenak nahastea atse-

gin du bere diseinuetan eta bere jantziek ibiltoki alternatiboetatik ofizialetara jauzi egitea lortu dute. Ezin ahaztu daiteke Koji Tatsumo japoniarra. Jantzien itxura aldagetari ekin zion hasieran eta, orain, aldiz, sormen lan propioak egiten ditu, modelo berbera eraldatuz eta eraldatuz.

Kustomizazioa filosofia gisa

Norbere pertsonalitatea islatzen duen arropa diseinatzeko ideia lau haizetara zabaldu da modaren agindu uniformizatzailen gainetik. Mundu osoan, gazteek, diseinatzaile hasi berriek eta baita diseinu enpresa handiek ere bere egin dute kustomizazioaren ideia. Lagun taldea beren gogoko kamisetak egitera ausartzen den bezala, Nike etxeak bezeroaren gustuko zapatilak neurriara egiteko aukera eskaintzen du egun. Aurpegi desberdinak dituen fenomeno bilakatu da. Nor bere kasa gustura jantzita sentitzea da gakoa.

Gurean ere bada aukera

Madrilen eta Bartzelonan arruntagoa den arren, Bilbon ere topatu dugu arropa kustomizatzen duen diseinatzaile gazte bikotea. Alde Zaharreko denda batean ematen dute zerbitzu hau. "Jendeak ondo hartu du ideia, baina ez da gehiegi ausartzen, ez baita azken emaitzaz gehiegi fidatzen" dio Veronica bertako arduradunak. Hala ere, mesfidantzarako arrazoirik ez dago, bezeroak eta diseinatzaileak, bien artean erabakitzen baitute den-dena: jantziari zein atal aldatu, zein oihal doakion ondo, zein apaingarri erantsi... Kustomizatutako pieza bakoitzak 56 euro kobratzen dute gutxi gora-behera eta astebeteren buruan amaitzen dute lana. Veronicaren esanetan, "sorpresa handia hartzen dute bezeroek beren jantziak berrituta ikustean. Erdi ahaztuta edo erabiltzen ez duzun arropa berreskuratzeko era paregabekoa da". **F**

